

ELKARTEK 2020 PROGRAMA

II. fasea

Helburua

Ebazpen honen helburua hauxe da: II. faserako deialdia egitea, I. fasean onartutako proiektuetarako laguntzak esleitzeko. Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2016ko abenduaren 9ko Aginduan I. fasea aurreikusi zen, eta horretarako deialdia 2019ko abenduaren 10eko Ebazpena-ren bidez egin zen (2019ko abenduaren 20ko EHAA, 242. zk.). Aipatutako agindu horren bidez, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa arautzen da (Elkartek programa), 2020ko ekitaldiari dagokionez. Proiektuak 2020ko eta 2021eko ekitaldietan egitekoak izango dira.

GARRANTZITSUA: Deialdiaren I. fasean hautatutako proiektuek baino ezingo dute bigarren fase honetan parte hartu.

Eskabidea aurkezteko epea

2020ko irailaren 22ko 12:00ak arte

Barne prozeduraren laburpena:

Eskabidera jotzeko eta hura betetzeko nahitaez sartu beharko da jarraian zehazten den egoitza elektronikoan:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1027106/> (gaztelera)

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027106/> (euskera)

UPV/EHUK duen rolaen arabera, bi prozedura bereiziko dira:

❖ **UPV/EHU buru dituen proiektuak:**

INk bere proiektura "Ikus II. fasea" estekatik sartu beharko du, eragile parte hartzaile bakoitzarentzako sinadura dokumentuak sortu beharko ditu eta dagozkien legezko ordezkariari bidali beharko dizkie, elektronikoki sinatuta bidaltzeko. IN izango da proiektuan parte hartzen duten eragile guztien sinadura dokumentu guztiak biltzeko eta erreferentziazko teknikariari bidaltzeko arduraduna, **2020ko irailaren 17ra arte (barne)**.

UPV/EHUko legezko ordezkariak dokumentuak sinatzeko Ikerketako Errektoreordetzatik kudeatuko da, eta hura izango da, halaber, eskabidearen aurkezpen formalaren arduraduna.

❖ **UPV/EHU eragile gisa partaide duten proiektuak:**

UPV/EHU azpiproiektuaren ikertzaile nagusiak bere espedientera "Ikus II.fasea" estekatik jo beharko du, sinadura dokumentua sortu eta erreferentziazko teknikariari bidali, **2020ko irailaren 17ra arte (barne)**. Ikerketako Errektoreordetzatik elektronikoki bidaliko zaio dokumentua sinatuta, ikertzaile nagusiak proiektuaren buruari helarazi ahal izateko, izan ere, hura izango da eskabidea formal aurkezteko arduraduna.

Erreferentziazko teknikariek harremanetan jartzeko:

Arabako Campusa	convocatoriasaraba.dgi@ehu.eus
Gipuzkoako Campusa	convocatoriasgipuzkoa.dgi@ehu.eus
Bizkaiko Campusa	convocatoriasbizkaia.dgi@ehu.eus

Beste kontaktu batzuk:

UPV-EHU: Tel.: 94 601 80 08 Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus	SPRI: Tel.: 94 403 70 43 Helbide elektronikoa: mgarcia@spri.eus	EUSKO JAURLARITZA: Tel.: 945 01 82 24 Helbide elektronikoa: a-gandarias@euskadi.eus Tel.: 945 01 65 70 Helbide elektronikoa: ja-martinez@euskadi.eus
--	---	--